

Faustino Campos Exposito
Erroibar, Nafarroa (1894)

Aurkibidea

Biografia

Erroibarko Orondritz kontzejuan jaioa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Zintak

ERB-009

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1985-01-01
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

Pasarteak

1. Urrozko feriara

- **Erref:** ERB-009/001
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>San Martin egunez egiten zen feria Urrotzen. Eguna argitu eta gero ateratzen ziren etxetik bertara joateko. Oinez ze ibilbide egiten zuten. Hiru ordu inguru behar izaten zituzten. Abere asko egoten zen. Inguruko herrietako jendea biltzen zen. Tratua erdaraz egiten zen azokan. Euskararen mugak.</p>

Transkripzioa

- Ibili zarate, gazte-denboran, hemendik Urrotz eta Agoitze aldera? abereak harturik eta, hango... Urrotzen, garai batean, egiten zen feria famatua, ez?
- Bai, bai, Urrotzen, bai.
- Egon zarete han?
- Ni bai.
- Nondik joaten zineten?
- Emendik eta karretera...
- Dena oinez?
- Oñes, oñez.
- Aber, konta ezazu ongi nondik joaten zineten, zein herrietan barrena eta hola...
- Emendik atra?
- Eta ze ordutan ateratzen zineten eta, kontatu ongi.
- Ze ordutan? seun... etzien beti ordu batean atratzen, ez, e(t)zute... baña enuela emen, ta... Urrozko ferietara ioateko? atratzen giran ta... goizëan, argitu ondoan. San Martin eunian tzien feriak or ee, bai, ta... argitu ondoan, emendik-eta arata? ta oñez, emendik, orai duzu karretera, ordun etzen karreteraik, emendik... Señorioa, baziren-ta iru erri, iru erri... ttarrak or, bidian, ugalde baztarrean, emen iru. Gero?...
- Zein dira hiru horiek?
- Ta Gurbizar, Urniza, Larräingoa...
- Hiru horiek?
- Iru oiek; gero, altzinao bazen bertzoat, Urrizalki(n), bertzoat Zuntzarren, bertzoat Zalba, bertzoat Oskariz; (g)ero? urbilena, Urrotz.
- Janariz?
- Bueno, Janariz ere bai, bueno Janariz... alde ortan tze.
- Eta Beortegi; horiek ere...
- Oek-eta, por parte dire, Biortegi ta Erdozain ta denak-eta.
- Eta Ardaitz ez zenuten ukitzen?
- Ardaiz e...
- Aparte, apartexeago gelditzen zen...
- Bai, bai, bai, oi, bai.
- Eta ze ordutan allegatzen zineten Urrotza?
- Koño! pues e, gu elleatiko (g)ira... lleatzen gina Urrotza ta... tze? iru orduz bai.
- Hiru ordu behar zenuten, hemendik hara?
- Ba, ba, bai. Gero? andik onata? ta ejee! eztait, andik onata? ta, artsean beran, tor on-, tortzen ginan...
- Eta bidean gelditzen zineten pixka bat hamaiketako edo almortzu pixka

bat egiteko?

- Bai.

- Non?

- Ta... kasik-eta Oskaritzen, franko... kasik, kasik beti Oskaritzen; andik, ondotik pasa züte eguerdien? ta, eldu-de, an-ta la-, pinta at ardo edan? edo, ya... almortzuekin? ta, aldea.

- Eta gero, Urrotzen, non biltzen zineten?

- Bah! Urrotzen an, ibiltzen ginen nei ere, eta...

- Plaza handi horretan?

- Bai, plaza aundi ortan? an tziren feriak, an tziren aziendak, an tziren beak, an tziren... ardiak, tzerriak, auntzak, denetaik.

- Nondik etortzen ziren haiek guztiak?

- Ba... ondoko erri aetaik, baztarreko erri aetaik-eta tortzen tzien denak.

- Inguru honetako(ak)? ala baita hango beste balle haietatik ere bai?

- Bai, bai, beittiko aetaik. Obenean? emendik ere obenean, yoaten tzien, ardiak maten zuzten, saltzeko, an, an merkatu iten baitzen ta, emendik eta erri oetaik ere (b)ai, bakar zenbait; ahora, gañeakoak... aundien... aundienak-eta ibiltze(n), alrede(d)or, aetaik. An erri aunitz baitutzu! orretara, erri oietaik, bai.

- Eta han elkar hizketa eta tratu guztia-eta, erdaraz eginen zen...

- Bai.

- Han, Urrotzen ez zen euskararik egiten...

- Ez, ez-ez-ez-ez... an denak-eta erdaraz... zien.

- Noraino egiten zen euskaraz orduan? hemendik beheiti?

- Ardaitzen? bueno...

- Ardaitzeraino bai...

- Bai, Ardaitzen mintzo zen baño, Ardaiztik beiti? bakar zenbait obenian bazen, eon, bezte aldetik-eta etorria, ezkondu olat eta... orra.

- Urritzelkin eta Zuntzarren eta horietan, gutiago?

- Yeh!... guti, guti-guti-guti, an ë guti; Ardaitzen bai, Ardaitzen orai ere, orainik ere bei mintzo zu!...

- Bai?

- Bai; gero... Ardaiztik-eta nonnai, bertze aldera-ta, badagozu Errea, erri bat; an ere bai euskeraz? eztait... orai galdiauzu, bai.

2. Euskararen egoera Beortegin eta inguruetan

• **Erref:** ERB-009/002

• **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:09:00

• **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Beortegin ba omen ziren euskaldun bakan batzuk bera gaztea zenean. Inguruko herrietatik Mezkitzen daudela euskaldun gehien dio. Kalifornian bizi izan zen 10 urtez. Euskaraz ongi moldatzen omen zen bertara joandako gipuzkoarrekin eta iparraldeko euskaldunekin. Bizkaitarrekin ez.</p>

Transkripzioa

- Egun batez sartu nintzen Beortegin...

- Ah, Bior-, Biortin izan tzirä?

- Bai, bai, joan den urtean, eta hango andre batek erran zidan, bera haur zelarik, hemengo jendea-eta nola joaten zen Urrozko feriara, eta hemengoak, Olondrizkoaketa, euskaraz-eta ari zirela eta berak ez zuela

konprenditzen...

- Bai, izeiten die, izen daike ori.

- Zu ere, inoiz edo behin, Beortegitik pasea izanen zara...

- Ni? bai!... Biurtin ni eön naiz... bestetan ere; bestak eiten tzien, denbora guzia, badakizu, urtian ta erri guzietan ta... i bia-iru egun, besta, ta...

Biortin izan naiz ni... klaro, ba, bear bada... eztait, franko alditz eta ala...

- Eta zu gazte zinelarik edo aski mutilkoxkorra zinelarik, Beortegin ere zaharren artean euskaldunik izanen zen, ez?

- Bai.

- Bai, ezagutu duzu?

- Bai, bai... bai, guti, bai, pero bakarren bat, e? ya zarretaik.

- Zenbat urte izanen zenituen zuk han euskaldunik ezagutu zenuenean?

- Nik ara, ni arara, alda-, Biorteira juaten nitzelaik... emendik-eta, nik ze? lomas... amabortz urte, lomas izein nituen nik, ta orduen, bakar zenbait zarretaik, bazen, baña guti; nik española mintzo nuen an, euskara bera e mintzo nuen, orai beño obeki, amabortz urtetan, baña... an bakar zenbait bazen, baña guti... guti.

- Ba bertakoa, e? bertakoa ezagutu duzu, e? Beortegin euskaldunik, hango bereko euskalduna ezagutu duzu...

- Bai-bai-bai-bai, zau- zautu, bai, bai, bai. Baña... guk gero? batre, orai eztutzu or nion ere! eskual-, ezpalima(d)a... ta... emen, euskaldunak orai oañik-eta fran(t)zes mugan, emen bai.

- Bai, Lintzoain aldera eta Mezkitz aldera eta...

- Denak, oetaik; Mezkitzen iun baño obeki, Mezkitzen bai, Mezkitzen oañik baditutzu gazteak-eta, euskera ongi mintzatenak. Bai... emen euskera oraitan, eeh!... ondarra galdiko zue; oraiko gaztek? bueno, kolejioetara... joaten badire, or, ikäskola... oetara ta ola... Or il de.

- Bai, horietan haur asko ari da orain ikasten, bai.

- Bai, bai, bai; oek-eta ikasiko ute, bai.

- Guk ere baditugu hiru semealaba eta primeran egiten dute (... / ...) eta segitzen dugu etxean...

- Ez, ez, euskara, ongi mintzatu ten batek-eta, lenguaje pollita uzu.

- Oso polita, e?

- Bai... lenguaje pollita uzu. Jode! gu Kalifornian, ni Kalifornian eon naiz, t'amarr urte in nituen nik an, t'an frantses euskaldunak bazien auniz. Joe! ta aekin? ta arront euskara mintzo ginen; gipuzkuanoa, gipuzkuanoak ere bai, baña bizkainoa? ura...

- Diferentea da, e?

- Arront ertsia, e?... ni? gipuzkuanoeki eta? ora(i) ere, noiznai, oietaik, gipuzkuanoak onat etortzen tzozute? bea eroatera ta ola; oekin? ta, entendatzen niz ongi, baña bizkainoak? koño! eztuu... distintoa uzu, bai, distintoa da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com